Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei laguntza hobea emateko erakundeen arteko hirugarren akordioa diseinatu eta genero-ikuspegiarekin diseinatu eta egiteko kontratua esleitzeko baldintza teknikoen plegua

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat da, lehen mailako arazo sozial eta osasun publikoko bat, botere-harreman desberdinen eta emakumeen aurkako diskriminazioaren adierazpena, eta, gainera, generoaren arabera dauden egiturazko desberdintasunak iraunarazteko funtzio soziala betetzen du.

2001ean, EAEn "Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko lehen akordioa" sinatu zen. Akordio hori sinatu zuten indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta eta babesa emateko lan egiten duten gure erkidegoko agintari nagusiek.

Aurrerago, 2009an, erakundeen arteko II. Akordioa sinatu zen, erakunde sinatzaileek ekintza gehiago egin izanaren ondorioz, eta lege-aldaketak egin izanaren ondorioz; izan ere, tresna juridikoak sortu ziren babes-aginduei eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegien sorrerari dagokienez, besteak beste. Hori dela eta, beharrezkoa izan zen testuinguru berria zabaltzea eta horri erantzuna ematea.

Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioaren helburua da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen esku-hartzeari dagokionez, gure erkidegoan erakundeen arteko koordinazioa hobetzea, integrazio sanitario, polizial, judizial eta sozial osoa bermatzeko.

Erakundeen arteko II. Akordioa sinatu zenetik, aldaketa garrantzitsuak gertatu dira, hala nola genero-indarkeriaren biktimen kontsiderazioa zabaltzea eta indarkeriaren definizioa bera, orain emakumeen aurkako indarkeria matxista deitzen baitzaio. Era berean, bai arauei dagokienez, bai erakunde arteko sareak horiek betetzeari dagokionez, aldaketak egin behar dira, alde batetik, nazioarteko, estatuko eta erkidegoko araudi berrira egokitzeko, eta, bestetik, indarkeria

matxistaren biktimei emandako arretaren hobekuntzak kontuan hartzeko.

Horregatik guztiagatik, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzeko lege-proiektua Legebiltzarrean izapidetzen ari dela kontuan hartuta, beharrezkoa da erakundeen arteko II. Akordioa eguneratzea, gure erkidegoan 2009tik 2021era bitartean izandako nahiz epe laburrean aurreikusten diren arau-programa eta testuinguru-aldaketetara egokitzeko.

1.- Kontratuaren xedea:

Kontratu honen xedea da esleitzea erakundeen arteko II. Akordioaren egituraren eta edukien diseinu eta eguneratze lanak, EAEn indarkeria matxistaren biktimei arreta hobea emateko erakundeen arteko III. Akordioa sinatzeko oinarri izango den dokumentua egiteko.

Helburu hori lortzeko, enpresa esleipendunak lan-plan bat egingo du, gutxienez honako jarduketa hauek bilduko dituena:

1. Akordioaren egitura eguneratzea
2. Akordio berriaren edukiak lantzea
3. Protokoloak berrikustea eta eguneratzea
4. Akordioarekin batera doazen dokumentu komunak diseinatzea eta egitea

2.- Funtzioak eta zereginak. Entitate esleipendunak honako zeregin eta eginkizun hauek izango ditu:

1. Lan-plan bat diseinatu, antolatu, koordinatu eta garatzea, kontratuaren xedea betetzeko. Plan horretan honako zeregin hauek zehaztu beharko dira:

1.1. Akordioaren egitura eguneratzea

- Akordioaren zioen azalpena eta printzipio orokorrak berrikustea.
- Akordioak berekin dituen atal guztiak proposatzea eta zehaztea: alderdi sinatzaileak, eremu objektiboa eta subjektiboa, koordinazio-organoak, alderdien konpromisoak, eranskinak, etab.

1.2. Akordio berriaren edukiak lantzea

Azken urteetan sortutako informazio garrantzitsu eta dokumentazio guztia oinarritzat hartuko da, besteak beste: II. Akordioaren Ebaluazio eta Jarraipen Txostenak; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea betez, baliabideen ebaluazioak; "Indarkeria jasaten duten Emakumeentzako eta Neskatoentzako Zerbitzu Esentzialei buruzko Programa Bateratu Globala" Nazio Batuen programaren ondorioak; Arartekoaren txostenak; eta beste txosten instituzional garrantzitsu batzuk.

Horiek baliatuta, enpresa honako hauek egingo ditu:

- Akordioaren egitura eguneratua eta adostua osatuko duten atal bakoitzeko testuak proposatzea.
- Erakundeetatik jasotzen diren ekarpenak kudeatzea, atal bakoitzaren edukiaren azken adostasuna lortu arte.

1.3. Protokoloak berrikustea eta eguneratzea:

- Erakundeen protokolo eguneratuak eta erakundeen arteko koordinaziorako aldebiko akordioak aztertzea, baloratzeko ea egokiak diren Akordioan sartzeko.

- Akordio berrian adostutako jarraibideetara egokitu behar diren protokoloak identifikatzea.

- Erakundeen arteko koordinazio-protokolo berriak egitea esku hartzeko eremu guztietan, hau da, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak arreta-sisteman sartzeko bideak diren eremuetan.

1.4. <u>Akordioarekin batera doazen dokumentu komunak diseinatzea eta egitea</u>

- Tresna homogeneoak sartzea, Akordioan sartuko diren eta biktimekin esku hartzen duten erakunde guztiek erabil ditzaketen adostasun-tresna gisa; besteak beste, EAEko eta EAEtik kanpoko biktimentzako egoitza-harrerako baliabideak eskuratzeko koordinazio prozedura, bai eta prozedura horrekin batera doazen dokumentuak eta plantillak ere, Datuak Babesteko Legea kontuan hartuta.
- Dokumentu erabilgarrien gordailu bat sortzea: orientabideak, gomendioak, gidak, irizpideak …

2. Idazkaritza Teknikoko lanak egitea, Emakunderi erakundeen arteko III. Akordioko lantaldeak koordinatzen eta bultzatzen laguntzeko.

- Enpresa esleipendunak gai-zerrenda prestatzen lagunduko du, eta egingo ditu kontratuaren xedearekin lotuta Emakundek koordinatzen dituen bileretarako behar diren dokumentuak eta euskarriak. Horrez gain, bileretan parte hartuko du, eta bilera bakoitzaren akta hartuko du. Akta horretan, eztabaidak eta hartutako erabakiak jasoko dira.

- Gainera, inplikatutako erakundeek kontratua gauzatzearen jarraipena egiteko beharrezko memoria partzialak egingo ditu, esleipedunak, baita amaierako memoria bat ere, honako hauek bilduko dituena: lan-prozesua, egindako jarduketetan landutako

eta/edo erabilitako jarduera eta material guztiak, eta hirugarren Akordioa sinatzeko kontuan hartu beharreko alderdiak. Azkenik, laburpen exekutibo/aurkezpen bat egingo du, amaierako memorian oinarrituta.

3.- Kontratua gauzatzeko baliabide materialak eta giza baliabideak

1. Enpresa esleipendunak kontratuaren xedea behar bezala garatzeko behar diren baliabide materialak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak jarri beharko ditu.

2. Lana egiten duten pertsonek EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren arloan esku hartzeko erakunde-sarea ezagutu beharko dute; horretarako, erakundeen arretaren hiru mailetako programak, zerbitzuak eta baliabideak ezagutu beharko dituzte.

   Atxikitako lantaldeak kontratuaren helburuaren antzeko lanetan gutxienez bi urteko esperientzia egiaztagarria aurkeztu beharko du.

   Kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko, atxikitako lantaldeak lanbide-profilak dituzten pertsonak hartu beharko ditu barnean; pertsona horiek honako baldintza hauek bete behar ko dituzte: ezagutza juridikoak eta gizarte-zerbitzuen ezagutzak; zuzenbidean, psikologian, gizarte-lanean edo antzekoetan gradua edo lizentziatura edukitzea; eta berdintasunari eta/edo emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko prestakuntza izatea (talde osoaren berdintasunaren eta/edo indarkeriaren arloko prestakuntza-orduen batura 150 ordu izango da, gutxienez, unibertsitate batek edo administrazio publiko batek egiaztatuta

3. Elebitasuna (euskara eta gaztelania) bermatu beharko da goian aipatutako eginkizunak eta zereginak garatzean, bai eta kontratuaren esparruan landutako material guztietan ere.

4. Kontratua gauzatzen parte hartuko duten langileak enpresa esleipendunaren mende egongo dira funtzionalki eta organikoki, dagokion sozietate- edo lan-loturaren eta dagokion aseguramenduaren pean. Enpresaren eskumena da langile horien harreman juridikoa edo lan-harremana, bai eta kontratuaren xedea zuzen eta eraginkortasunez gauzatzeko beharrezkoak izan daitezkeen pertsonen ordezkapenak egitea ere.

5. Kontratua gauzatzen parte hartuko duten langileek, hirugarrenekiko harremanetan, identifikazioren bat eraman beharko dute, ikusteko moduan, kontratatutako enpresako plantillako kideak direla zalantzarik gabe ohartarazi ahal izateko.

4.- Ikuskapena eta jarraipena

Emakunderen Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Arloak gainbegiratuko du kontratuaren gauzatzea eta jarraipena egingo du.

5-. Datuen egokitasuna

Kontratu honen xedean zehaztutako zerbitzua emateko erabilitako datuak Emakunderen jarraibideen arabera tratatu beharko dira, eta enpresa esleipendunak ez dizkie hirugarrenei jakinarazi, erakutsi, laga edo jakinaraziko. Gainera, kontratu hau amaitutakoan, datu horiek jasotzen dituzten dokumentuak edo euskarriak itzuli edo suntsituko ditu.

Halaber, enpresa esleipendunak erabateko konfidentzialtasuna gorde beharko du zerbitzua ematen duen bitartean eskuratzen dituen datuei buruz.